

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Imanol Larrea Aranguren*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1934)*

Aurkibidea



## Biografia



Antigua auzoko Matia kalean jaioa, Azpeitira joan ziren ihesi gerra sasoiari, ama bertakoa zen eta. Donostiara bueltatu zirenean ere sarri joaten ziren Azpeitira. Aita Ondarretakoa zen, eta El Leon garagardo fabrikari egiten zuen lan. Mintegi ahizpekin ibili zen eskola txikian Imanol, elizako plazan, eta ondoren marianistetan egin zuen batxilergoa, giro hartan ez oso gustura. Merkataritza ikasi zuen, eta 18 urterekin "Banco Bilbao"n hasi zen lanean. Erretiroa hartu arte ibili zen han, baina beste hamaika lan ere egin ditu: hainbat tokitako kontuak eraman ditu, eta euskararen aldeko lanean ere jardun du. Elbira Zipitriarekin alfabetatu zen, eta etxean eskolak ematen hasi zen, hark erakutsitakoa zabaltzeko. Jakintza ikastolan ere irakasle ibili zen. Oso gazte ezkondu zen, 21 urterekin, eta ohituraren kontra: soldaduska egin aurretik. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Emaztea Aietekoa zuen. Oso mendizalea da.

## Zintak

### DON-034

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-14
- **Iraupena:** 114 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

## Pasarteak

### 1. Umetan, Azpeitian

- **Erref:** DON-034/002

- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### **Laburpena:**

Etxean jaio zen, Matia kalean. Aita frontera joan zen, Euzko Gudarostea sortzera. Ama eta biak Azpeitira joan ziren; arreba gerra garaian jaio zen. Euskara ere hangoa du. Gero ere asko joaten zen Azpeitira. Donostian ez zen euskaraz hitz egiten kalean.

## **2. Antigu eta Matia kalea**

- **Erref:** DON-034/003
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

#### **Laburpena:**

<p>Gerratik bueltan, etxea galduta zuten (maizterrak ziren). Pareko etxera joan ziren bizitzera, Matia kalean bertan. 21 urterekin ezkondu zen; seme zaharrenak 52 urte ditu. Antiguon kale ia bakarra zen Matia. Nolakoa zen. Tranbiaren ibilbidea. Zaldi-karroak bai, kargarako, autoak gutxi. Jendea oinez ibiltzen zen, bestela tranbian. Donostia tuneletik bestaldera da: bi herrixka balira bezala.</p>

## **3. Antiguako sagardotegiak**

- **Erref:** DON-034/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

#### **Laburpena:**

Sagardotegi asko zegoen Antigan: Xexenena, Lopexenekoa... Pitxarrean eta basotan edaten zen. Emakumeak izaten ziren edaria banatzen zutenak, baina bezeroak gizonezkoak.

#### **Transkripzioa**

- Eta ze denda eta ze taberna ta zer zegoen?  
- Sagardotegi asko. Garai hartan sagardotegiak batez ere. Joe, sagardotegiak, jesus! Zenbat zauden gaiña. Bai, ba, Xexenenekua,

Lopexenekua, ez dakit, ba geo ya hemen, hemen beste kaleka bat badao, don Juan de Garain, hor'e bazan taberna... Zea bat, sagardotegi bat. Eta hemen Matia, gure etxe azpiyan, hogeita hemezortziyan eta hogeita hamaxeiyen ere sagardotegi bana zegon. Gero beste bat Kasimironekua, kale hontan bertan e? Kasimironekua. Ta Xexenena esan detena Kasimiron paren, baiño ya Benta Berri aldeago. Ta Lopexena esan detena Benta Berri bertan. Eta bueno, eta seguruna ahaztu iten zaizkitela ba pilla bat, ez?

- Orduan jendia sagardotegiz sagardotegi ibiltzen zan?
- Bai, bueno, lanetik erten ta sagardo ta pitxarrak edaten zian, pitxarra hartzen zan. Basuetan'e bai e? Basuan sagardua ateratzen zuten, zea, kupeletik, basuk eta basuk banatzen zituzten hortako. Hantxen exerita egoten zan andra batek ateratzen zun.
- Andra bat egoten zan e?
- Gehiyenetan andra bat izaten zan, baiño hortan...
- Edaten emakumerik ez zan eongo?
- Ez, ez, tabernatara ez zian juten.

#### 4. Antiguako lantegiak

- **Erref:** DON-034/006
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

##### Laburpena:

Antiguako industria: Lizarriturri xaboi fabrika, Suchard eta El Leon ziren lantegi nagusiak. Kandela lantegia, ispiluena, alvareztarren inprenta...

#### 5. Antiguako dendak

- **Erref:** DON-034/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

##### Laburpena:

Dendetan denetarik saltzen zen. Geroago hasi zen espezializazioa. Arropa eroatera Donostiara joan behar izaten zen. Sastrearengana eta jostunengana joaten zen jendea. Emakume askok josten zekiten, eta beraien arropak egiten zituzten. Ez zegoen dirua arropetan gastatzerik.

## 6. Kaleko hizkuntza, erdara

- **Erref:** DON-034/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

<p>Hiru senide ziren, zaharrena bera. Anaiak erabat galdu zuen euskara; gero berreskuratu egin zuen. Kaleko hizkuntza erdara zen. Azpeitian pasatzen zituen oporrak.</p>

### Transkripzioa

- Eta zuek zenbat senide ziñeten?

- Hiru, hiru. Bai, bai, zaharrena neroni eta gero arreba, Mari Karmen, eta anaiye Martin. Eta anaiekin bost o sei urten aldia dakat, bost eta erdi o holako zerbait. Eta bueno, ikusi nun orduan e? Nere... Ni ta nere arrebak euskera oso ondo zeatu, baiño nere anaiek galdu in zun erabat, nahiz eta guraso berberak izan, galdu in zun. Eta bueno, hitz eiten du euskera, noski hitz eiten dula. Eta gero bera ohartu zanin galdu in zula, eta ezkontzeko garaixa etorri zanien ta saiatu zan eta, bai, eiten du, euskera noski eiten dula; baiño bai, izan zan oso afektatua izan zan alde hortatik. Kaleko kale hizkuntza, beti kalin eoten zan gaiña txikixena, ta beti kalin kalin, ta gu ez giñan hain kale zalek, bueno, kale zalik beharbada bai, baiño ez genun... Ni neronengatik ari naiz e? Eta arreba berdiña zan. Ni Azpeiti aldea juten nintzan eta Azpeitayan nere zea oporrak eta danak hantxe pasatzen nituan.

## 7. Ondarretako "barraka"

- **Erref:** DON-034/009
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Aita donostiarra zen, Ondarretako "barraka"-n jaioa. "Barraka" baserri antzeko etxea zen, baina kaskarragoa. Aitonak etxe batzuk egin zituen han; Satrustegiren lurretan. Amonaren izena jarri zion etxeetako bati: Carmen. Ezeizak ere egin zituen etxeak. Izeba-osabak eta lehengusuak han bizi ziren, mordoak. 13 anai-arreba ziren aita-eta. Plantxatu egiten zuten izebek, aberatsentzat.

## 8. Bainulariak eta hondartza

- **Erref:** DON-034/010
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Bainulariak bizi ziren "barrakan". Ramon bainularia. Cari&ntilde;o izeneko bat ere ba ote zen... Toldoak. Hondartzara ez zen joaten jende asko: igerian ere ez zuten ikasten. Amarekin joaten ziren beraiek. Kasetak, lehenengo gurpilekin eta gero finkoak. Uretara helduta sartzeko, soka bat zegoen.</p>

**9. Umetako jolasak eta eskola**

- **Erref:** DON-034/011
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:22:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetako jolasak: kanikak, pilota... Eskola txikian elizako plazan ibili zen: Lourdeseko eskola. Mintegi ahizpak ziren maistrak. Nahiko zorrotzak ziren. Rosaritok ez zuen asko jotzen. Reglarekin buruan bai, baina ez asko. Marianistetara bidali zuten gero.</p>

**10. Marianistetako giroa arrotz**

- **Erref:** DON-034/012
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Marianisten ikastetxea dirudunena zen. Ez zuen oso ondo pasatu. Ogi zuria jaten zuten gainerako ikasleek, eta bera inbidiaz. Aita txoferra zuela esaten lotsatu. Klase desberdintasunak. Giro berria oso erlijiosoa zen. Eguneroko, meza. Valladoliden egiten zen bukaerako azterketa.

**11. Inposatutako fedea**

- **Erref:** DON-034/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

Marianistetatik irtenda, batzuek fede handiarekin segitzen zuten, eta beste batzuek justu kontrakoa. Berari hori gertatu zitzaion, baina seme-alabekin berriro bueltatu zen erlijio kontuetara.

**Transkripzioa**

Eta horrek, ba, sortzen zitun ba, ez dakit nola esan, handik ertenda ba batzuek bere fedia benetakua izango zuten eta oso zintzo segitu zuten ta asko e? Dia asko garai hartako zean segitu dutenak bide hortatik. Eta beste batzuek ba, ez dakit, nola oso inposatutako gauza zan, ba askatasuna izaten danian ba ospa ein genun ez? Ez dakit. Ta hori ondo're ez det esan, zeatikan ospa in genun, baiño gero atzea bueltatzen zea, seme-alabak dituzunin, ezkondu ta sema alabak eta "joño, ba hauei'de edukaziyo pixka bat eman behar diyezu". Ta ordun ez dakit, hasten zea ta, joe, pentsatzen dezu ba zea, berriz'e sinismena etorri zaizula ta dana. Hainbesteaiño da. Zuk nahi baldin badezu beste batzuei erakutsi, lehenbizikotik zerorrek hasi behar dezu siñisten. Eta jode, ba hor problemak izan nitun, eta bueno, baiño halaxen oso ondo moldatu nintzan eta ematen zuen jode, ba, eskutik hartuta eramaten nitun lehenengo ostiraletan ta holako zea ohituretara, goatzen naiz, bai, batez ere euskerazkua zanian.

**12. Marianistetan erdaraz**

- **Erref:** DON-034/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

<p>Marianistetan dena erdaraz, eta ikasle euskaldunen artean ere erdaraz aritzen ziren. Maisu euskaldunik ez, jatorri frantsesekoa zen eskola. Uniformerik ez, baina gorbatarekin. Ez zen <em>Cara al Sol</em> kantatzen; eskola txikian halakoak gehiago, baina asko ere ez.</p>

**13. Euskara, etxeko hizkuntza**

- **Erref:** DON-034/016
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

**Laburpena:**

Zigorrik ez zuen ezagutu euskaraz egiteagatik, ez zuten euskaraz egiten eta. Euskara etxean uzten zuten. Lagun artean ere erdaraz. Helduek hitz egiten zuten, baina umeez ez. Sagardotegietan bai, euskaraz.

**Transkripzioa**

- Zigorrik eta jartzen zan euskeraz hitz egin ezkeredo?  
- Ez, ez, maristetan ez. Ez maristetan ez, baiño ez gendun hitz eiten ta nola jarri? Hori ez zan hamengo giroa, ez zan Donostikua hola, e? Donostiyan, aurretikan, euskera etxian uzten zenun eta ya, ertetzen ziñanen atetik, etxeko atetik, ya bazenekin ze giro izango zan. Eta lagun arteko giroa're erdera zan. Lagun artea, hemen mutillek eta alkarrekin euskeraz hitz eiten ta hori ez, esan dizut dendatan ta hola hitz eiten genula, besteik ez. Baiño, helduak bai e? Hitz eiten zuten e? Helduak ziranak hitz eiten zuten, baiño guk mutikozkorretan ta ez. Helduak ziranak, ba, bean artian hitz eiten zuten, sagardotegietan ta euskeraz hitz eiten zan, joe, hori, "hombre, claro". Bestela ez zan ezer izango ya, e? Hoiyegatik ez balitz izan. Bai, bai.

**14. Baserritarrak lantegietan**

- **Erref:** DON-034/017
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Baserreri asko zegoen gerra ondoren. Nola desagertu ziren. Lursailak diru gutxiren truke saldu zituzten baserritarrek. Lantegietan egiten zuten lana gehienek, baserritik bizitzea zaila zelako. Kanpotarrak baino gehiago zebiltzan bertakoak lantegietan, El Leonen adibidez.

**15. Aita, El Leon lantegiko txofer**

- **Erref:** DON-034/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:34:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

**Laburpena:**

Aita El Leon garagardo lantegiko txoferra zen, kamioilaria. 47 bat urterekin begia galdu zuen, istripuz, eta ez zioten gidabaimena berritu. Aldatu egin da hori, orain posible da begibakarrek gidatzea.

## 16. Izotza egiten, El Leon lantegian

- **Erref:** DON-034/020
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:35:11. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

Aitaren lana garagardo fabrikan: izotz barra handiak egiten zituzten. Amoniakoa erabiltzen zuten ura izozteko. Ur gazia zen, baina ur geza sartzen zen moldeetan. gauzez ere lan egiten zuten, 24 orduz egon behar zuelako martxan. Jela saldu egiten zen. kaiara ere bai. Jela xehetzeko makina zegoen. Garagardoa egiteko ere hotza behar da.

## 17. Garagardoa egiteko prozesua

- **Erref:** DON-034/021
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:41:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

<p>Garagardoa nola egiten zuten, El Leon lantegian. Lupulua, malta. Garagarra egosi egiten zen, eta lupulua nahasten zitzaion. Beste kaldera batzuetan fermentatzen zen, eta gero prentsatu. Lehenengo bero asko behar da. Kalderei ikatza botatzen, langile batzuk. Eta gero hotza. Alemaniarrak ziren, Kutztarrak. Uraren kalitatea: Igeldotik zetorren ura erabiltzen zuten, ez Artikutzakoa.</p>

## 18. Konporta erreka

- **Erref:** DON-034/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:06. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

### Laburpena:

Konporta erreka. Ibaeta aldetik zetorren, eta Suchard ondotik pasatzen zen, Lizarriturri atzetik Konportara, garagardotegiraino. Konporta etxe batzuk ziren. Bi errekek bat egiten zuten. Eskola batzuk ere baziren han. Ondarretako etxe zaharren ondotik itsasoraino. Ur zikinak ziren.

## 19. Kanaberarekin arrantzan

- **Erref:** DON-034/024
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

### Laburpena:

<p>Ur zikinak ziren, baina arrantza egiten zuen jendeak errekan. Karraspioak eta donzeilak harrapatzen zituen berak ere, kanaberarekin, mutikotan. Etxepeko mutikoekin ibiltzen zen.</p>

## 20. Neskatan egiteko garaia

- **Erref:** DON-034/025
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

<p>Neskatan hasi zirenean, Antiguako lagun kuadrilla ibiltzen zen. Erromeria girorik ez zegoen auzoan, baina Azpeitia aldean bai; Azkoitiko Martitten, neska-laguntzea egiten zen. Baserri giroan asko ibili zen. Emaztea, Aietekoa; hari ere baserrira laguntzen zion, oinez. Munto sagardotegian geldialdia. Amak errieta egiten zion.</p>

## 21. 18 urterekin, lanean

- **Erref:** DON-034/026
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:52:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

Marianistetan ibili ondoren, merkataritza ikasten hasi zen akademia batean. Ikasgai asko konbalidatu zizkioten. 17-18 urterekin oposaketak atera zituen bi banketxetan, eta Banco Bilbaon hasi zen lanean. Gaur egun biak bat dira.

## 22. Banketxeko lana I

- **Erref:** DON-034/027
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:52:59. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Banketxeko lana nola aldatu den. Auxiliar bezala hasi zen, baloreetan, Burtsan. Akzioak eta obligazioak. Kupoiak moztu egiten ziren, interesak kobratzeko eta abonatzeko. Dibidendoak. Kaja laguntzaileak. Hilaren batean izugarritzko lana egoten zen. Akzioak kajetan. 1952an hasi zen, eta orduan ari ziren aldaketak egiten; aurretik, denak eskuz.

**23. Banketxeko lana II**

- **Erref:** DON-034/029
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 01:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Banketxeetan erregistroak nola egiten ziren, liburuetan. Pertsona bakoitzari zenbat balore eta obligazio zituen jartzen zen, sarrera eta irteerekin. Dena eskuz. Eta koardatu egin behar zuen gero. Denbora asko behar zen. Iberduerok akzionista asko zituen. Kupoi gabeko akzioak ere bazeuden. Kobraketak nola egiten ziren.

**24. Banketxeko lana III**

- **Erref:** DON-034/031
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:02:59. **Bukatu:** 01:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

25 urte egin zituen Burtsan lanean. Kategoria guztiak pasatu zituen, departamenduko buru egin arte. Kartera, Kontu korranteak... beste sail batzuk ezagutu nahi zituen. Karteran papera deskontatzen zen; letrak erabiltzen ziren. Dirua aurreratzen zitzaion bezeroari, eta gero letrak kobratu.

**25. Kobratzaileak**

- **Erref:** DON-034/032
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:05:35. **Bukatu:** 01:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Kobratzaileak ere baziren. Lantegiek kontua izaten zuten.

## 26. Soldadutza, ezkondu ondoren

- **Erref:** DON-034/036
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:10:39. **Bukatu:** 01:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

<p>Soldadutzara joan aurretik ezkondu zen, ohituren kontra. Neska haurdun utzi zuela uste zuten inguruko denek, baina ez. Gurasoen etxera ezkondu ziren. Donostian tokatu zitzaion soldadutza; Carrascalen ere egin zituen hilabete batzuk, Nafarroan. Gobernu militarrean, makinaz idazten egon zen hilabete batzuetan, oso giro onean.</p>

## 27. Gobernu militarrean, idazkari

- **Erref:** DON-034/037
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:14:01. **Bukatu:** 01:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

### Laburpena:

<p>Ordutegi ona zuen, Gobernu Militarrean zebilenean, soldadutzan. Jeneralentzat egiten zuten lana, idazkiak. Hamaiketakoak egiten zuten: sardinak eta antxoak jaten zituzten. Paisanoz ateratzen ziren, atzeko atetik.</p>

## 28. Soldadu, eta bi lanekin

- **Erref:** DON-034/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:16:40. **Bukatu:** 01:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

<p>19 urterekin ezagutu zuen emaztea izango zuena, baina ezkondu artekoa luze egin zitzaien. Soldadu zebilela, banketxean ere egiten zuen lana, eta Londres hotelean ere bai, kontuak egiten. Gauerdian amaitzen zuen lana.</p>

### Transkripzioa

- Esan didazu hogeita bat urtekin ezkondu zifñala eta nobiotan noiz ezautu zenun zure...?

- Bai, ba hemeretzi urtekin o hola e? Bai. Oso luzea egin zitzaigun hogeita

bat urte arte itxoitia ta "hau ez da, ez da posible. Beinga, hau zerbait in behar diagu, ezkondu ta... Hau ez den martxa, neska".

- Eta ezkondu ziñeten hasieran etxera, eta gero?

- Bueno, eta gero hori, handik soldautza egin nauen eta ordun ni... Eske nik arratsaldien igual juten nintzen bankura. Ni ez nintzan konformatzen ehuneko hirurogeikin; nik ehuneko ehun konsegitzeko bankura juten nintzen. Eta gero etxia erosi nahi genuen eta gaiña bankutiken ertetzen nintzen ya ordu batzuk sartuta eta juten nintzen arratsaldeko xeiretan Hotel Londresea lanea. Bai, Hotel Londresen han terrazako mahaiyek eta eramaten nitun, kontuak gure kamareruei eta haiyekin bronkan eta egoten nintzan hamabiyek arte. Asike geo hamabiyek jota juten nintzen etxea, bai, eta beatzitako berriz zein hurrengo eguna etortzen zan zeakin gobierno militarren eta oso zea; baiña dana, bankure ta dana e? Gobierno militar, bankure, ez dakit zer. Oso polita izen zan.

- Ez zendun eukiko astirik ezertarako?

- Ez, ez, ez zegon astirik ezertarako.

## 29. Londres hotelean lanean

- **Erref:** DON-034/039
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:18:05. **Bukatu:** 01:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

Londres hoteleko lana nolakoa zen. Terrazan, barmana zen arduraduna. Kamareroak zailak dira engainatzen. Terrazetan hoteleko bezeroak egoten ziren, kaleko jendea ez normalean.

## 30. Etxea erosi, eta txiki geratu

- **Erref:** DON-034/040
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:21:36. **Bukatu:** 01:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Etxea nola erosi zuten, Aizkorri kalean. Familiako askok utzi zioten dirua, 135.000 pezeta osatu arte. Asko zen ordurako. Seme-alabak jaio eta etxea txiki geratu zitzairenean, Jauregi kalera joan ziren bizitzera.

## 31. Umeak, ospitalean

- **Erref:** DON-034/041
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:24:28. **Bukatu:** 01:26:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

**Laburpena:**

<p>Lehen umea etxean izan nahi zuen emazteak, baserriko ohiturari eusteko, baina arazoak izan zituen, eta ospitalean erditu zen. Bera soldadu zegoen Gobernu Militarrean.</p>

**32. Euskaltzaletasuna, familiaratik**

- **Erref:** DON-034/043
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:26:50. **Bukatu:** 01:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

**Laburpena:**

Euskaltzaletasuna familiaratik jaso zuen, batez ere gerraren ondorioz. Aita ELAkoa zen; osaba tenientea izan zen Euzko Gudarostean, eta borrokan hil zen. Beste osaba bat ere preso egon zen.

**33. Lan asko batera**

- **Erref:** DON-034/044
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:29:00. **Bukatu:** 01:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Lan asko egin behar izan zuen, etxean dirurik ez zuten eta. Toki askotan eramaten zituen kontuak. Seme-alaba asko izan zituzten. Fedea nola "galdu" zuen. Agnostikoa da orain.

**34. Euskara zabaltzen**

- **Erref:** DON-034/046
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:31:27. **Bukatu:** 01:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

<p>26 bat urterekin 'Acci&oacute;n Cat&oacute;lica'ko kontuak eramaten hasi zen. Jende euskaltzalea ezagutu zuen han, eta euskaraz idazten ikasten

hasi zen, Elbira Zipitriarekin. Gau-eskola. Ikasitako metodologia zabaltzeko, irakasten hasi zen, lehenengo etxean bertan eta gero Parte Zaharrean. Zipitriaren Nor-Nori-Nork sistema.</p>

### 35. Euskararen sena

- **Erref:** DON-034/047
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:34:45. **Bukatu:** 01:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

#### Laburpena:

"Balentxi" apaizak utzi zien gela bat, Parte Zaharrean. Aditza, joskera eta euskararen sena. Galdegaia. Ikasleak helduak ziren. Jendeak Zipitriaren pedagogia ezagutaraztea nahi zuen.

### 36. Ikastola, etxean

- **Erref:** DON-034/049
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:39:45. **Bukatu:** 01:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

#### Laburpena:

<p>Elbira Zipitriak Leitzako neska bat prestatu zuen andere&ntilde;orako, eta bere etxea izan zen ikastola, Antiguan. Jakintza zebilen sortzen orduan. Bi bide zeuden, eta bi lan molde; nor bere aldetik. Gaur egungo ikastolei buruzko iritzia.</p>

#### Transkripzioa

- Ni Parte Zaharrin sartuta neon, zuk esango dezu, "Antiguakoa izanda, zergatik Parte Zaharrin?". Ba, haure, andereño preparamen ai zan eta preparamen zun bat, Leitzako neska bat, Miren Terese, prepatuta zegoen eta Elbirak, "zea, jo, Antiguan billatu behar zaio honi leku bat, leku bat Antiguan billatu", ta, geure etxia, seme-alaba asko genitun. Umik jaikitzen zian, jazten zian, [...] jartzen genun, pun, pun. Eta hure izan zan gure ikastola, gure etxian. Hori izan zan lehenbiziko ikastola, etxean. Baiño paraleluan, zabillen Jakintza sortzen, hor Patxi Sansinenea. Patxi Sansinenea eta ni elkarrekin zeatu giñan bide diferentetan. Gure ikastola ez zan integratzen Jakintzan, bere bidea zalako, Elbiran bidetikan zijuan, hauek zabiltzetzen bestea, ta hori zabaldu ber zan. Eta gure mugak ziran, lana in ber zan euskaldunakin, "momentu hontan ez gaude, zea, euskeraz ez dakiten ta, erdaldunekin sartzeko". Elbiran zea hori zan. "Indarra hartzen dunen ingo da, baiño momentun behar degu aseguru, umiak euskera ingo dutela", aitu. Ta hola izan zan, ba, estilo bat, nik ez nijua esaten zein dan hor, zea, zenek irabazi dun ta, zea. Irabazi duna ba, bestia bai, baiño, bestia nik jode, nik illoba bat det Lizeo Santo Tomasen ibili dana

eta, hori dana egin eta EGA ta danak izan, eta erdaraz hitz eiten dio bere gurasoei. Eta bere aitai ez dalako atrebitzen baiño, bere amai bai, eta bere ama azkenian, zea, hainbeste zea in eta Goierrikua, ta hau ta dana, eta, eta, eta erderaz erantzuten dio alabai. Jode ba nei hori ez zait kabitzen buruan, entenitzen? "Así que" hori, lehenbiziko ikastolan ibilita eta Lizeotik ateatzen diranak, gehiyenak bide hori ematen dute, bean artian erderaz hitz egiten dute.

### 37. Jakintzan irakasle

- **Erref:** DON-034/051
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:42:04. **Bukatu:** 01:44:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

#### Laburpena:

Bi bideak nola elkartu ziren. Jakintzan hasi zen eskolak ematen, Loiola kalean ere bai, Ansolarekin. Nola erretiratu zen, irakasle profesionalak agertu zirenean.

### 38. Mendizale umetatik

- **Erref:** DON-034/053
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 01:44:57. **Bukatu:** 01:49:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

#### Laburpena:

<p>Zumitezko saskiak egiten zituzten Azpeitian. Mendizaletasuna Azpeitian sortu zitzaion, osabaren baserrira joaten zenean. Donostiatik oinez joan zen behin, mapa batekin. Orduko ekipamendua mendirako. Eskiak nola saldu zituen.</p>

### 39. Oporrak Aralarren

- **Erref:** DON-034/054
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:49:39. **Bukatu:** 01:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

#### Laburpena:

Bankuan ari zela, mendira gutxi joaten zen. Gero hasi zen berriro. Larunbatak libratzen hasi zirenean, taldean mendira joaten hasi zen. Baztan, Aizkorri, Aralar... Mendi aterpe bateko kide egitea lortu zuen, Aralarren. Udako oporrak han pasatzen zituzten, umeekin.

## 40. Mendiko arroparik ez

- **Erref:** DON-034/056
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:53:12. **Bukatu:** 01:54:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

### Laburpena:

Etxeko arrokekin joaten ziren mendira, zirarik ere ez zegoen. Plastikoa berandu hasi ziren saltzen. Arrantzaleek ule bezalako zerbait erabiltzen zuten. Kapak erabiltzen ziren euritarako.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-06*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com